

GIG 53

SESIARTEKO LAPIAZ GARBIA

BALIO INTRINTSEKOA: **2,25**

BALIAGARRITASUN-MAILA: **2,5**

KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Sesiarte mendiaren hegoaldeko hegala da geoparke osoko lapiaz biluziaren adibide ederrenetako bat. Eskala-erdiko paisaia korapilatsua da, eta hamaikatzu pinakulu zorrotzez, ildaska sakonez eta pitzaduraz dago osatuta.

Lurrazaleko forma horiek kaltzio karbonatoaren disoluzioaren ondorioz sortuak dira. Karbonato horrek osatzen du arroka, azido humikoz betetako jariatze-uren eraginez.

Forma pinakular biribilduak dira nagusi. Horrek erakusten du garairen batean lurzoruak estalita egon zirela. Era berean, nagusi dira pitzadurak eta ildaskak, diaklasen (*kluftkarren*) alde sortuak, baita *rundkarren* motako disoluzio-kanalak ere.



Antiklinalaren pitzadurak bideratutako Sesiarteko lapiazaren ikuspegia.

NOLA BERTARATU

Zelaitxikitik abiatuta, Lastur eta Madariaga lotzen dituen GI-3210 errepidean, hegalean gora egin behar da ipar-ekialderantz, Sesiarteko gailurrerantz.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X = 556657 / Y = 4786186 / Z = 566



Lapiaz gertutik ikusita.